

## Estructurar fundazioko hiru kidek HUHEZI bisitatu dute

2013/05/10

**Ana Leonor Rueda, Olga Villamizar eta Jorge Cortisoz** Estructurar fundazioko kideak dira, eta aste honetan Kolonbia utzi eta Euskal Herrian izan dira, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea bisitatzeko, batez ere Hezkuntza programa.

Euren bisitaren helburua izan da HUHEZI ondo ezagutzea, baina aprobetxatu dute bailarako beste erakunde batzuk ere bisitatzeko, hala nola Lanki, Alecop, Otalora, Bergarako Ikastola, Antzuolako Herri Eskola...



### Estructurar fundazioa

Estructurar fundazioa 1987an sortu zen **Bucaramangan**, Kolonbian, bertako komunitateak aukera hobek izan zitzan bere bizitza proiektuak hobeto egituratzeko, bereziki haur eta gazteen artean. Hezkuntza eta lanera bideratutako formazioa dira fundazioaren ardura nagusia.


